# AKORDIOA EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAREN ARTEAN, GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO LEGEAK ETA GIZARTE ESKUBIDEEN GUTUNAK OSATZEN DUTEN LEGE ESPARRUA BERRIKUSTEAREN ETA FAMILIA ETA GIZARTERATZE POLITIKEN INGURUAN

## I.- SARRERA

1998ko maiatzaren 22an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea talde parlamentario ia guztien adostasun orokorrarekin, Euskal Sozialisten talde parlamentarioa ere barne. Ondoren, 2000ko abenduaren 27an, Eusko Legebiltzarrak Gizarte Eskubideen Gutuna onartu zuen Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioaren babes adieraziarekin.

Legegintza-arloko gertakari garrantzitsu horiek aitzindariak dira oraindik ere gure erkidegoari egokitu zaion panorama konparatuan eta zalantzarik gabeko egitate bat hartzen dute abiapuntutzat: gizarte-bazterkeria eta marjinazioa arrisku handia dira gure bizikidetzarako, eta, hortaz, botere publikoek esku hartu beharra dute gizarte-sektore handiak gizarte-bazterkeriako egoerara edo arriskura bultzatzen dituzten fenomenoak sendo daitezela saihesteko.

# ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO VASCO Y EL GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS EN RELACIÓN CON LA REVISIÓN DEL MARCO LEGAL QUE CONFORMAN LA LEY CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL Y LA CARTA DE DERECHOS SOCIALES Y CON LAS POLITICAS DE FAMILIA E INSERCIÓN

## I.- INTRODUCCIÓN

Con fecha 22 de mayo de 1998 fue aprobada por el Parlamento Vasco la Ley contra la Exclusión Social con el consenso genérico de casi todos los grupos parlamentarios, incluido el Grupo Parlamentario Socialistas Vascos. Posteriormente, con fecha 27 de diciembre de 2000, el Parlamento Vasco aprobó la Carta de Derechos Sociales con el apoyo expreso del Grupo Parlamentario Socialistas Vascos.

Estos hitos legislativos, aún pioneros hoy en día en el panorama comparado en que se desenvuelve nuestra Comunidad, parten del incuestionable hecho de que la exclusión social y la marginación son un importante riesgo para nuestra convivencia por lo que es obligación de los poderes públicos intervenir para impedir la consolidación de fenómenos que condenan a importantes sectores sociales a situaciones o riesgo de exclusión social.

Ildo horretan, hazkunde ekonomikoak ez du soilik aurrerabidearen eta bizi-kalitatearen mesederako izan behar, eta babesa ere eman behar die gizarte-sektore behartsuenei, justiziako, elkartasuneko eta gizarte-kohesioko irizpideekin.

Horrela, gizarte-politikak, gainerako politika publikoekin koordinatuta, kolektibo behartsuenen egoerari erantzun behar die lehentasunez, hala nola gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen kasuan.

Aipaturiko arau multzoa aplikatzen hasi denetik igarotako denboraren, ordutik izan dituen aldaketen eta horren kudeaketan metaturiko esperientziaren eraginez, iritsi da unea hasierako postulatu juridiko eta sozialak berrikustekoa, ez bakarrik gizarteratzearen euskal espazioa zabaltzeko joera duen ikuspuntutik, baita —eta aurrekoa bezain garrantzitsua da hori— arauetan deskribaturiko prestazio-ereduaren iraungarritasuna ere, betiere arau-esparrua berrikustekoa izatea eragin duten fenomenoak kontuan hartzen dituen bide bat eta politika horien ematearen eta gauzatzearen kontrola, jarraipena eta diziplina gehiago azpimarratzen dituen beste bide bat uztartuz; azken bide hori indartzeak horrelako politikek behar duten justizia soziala bermatu egiten du.

En tal sentido, el crecimiento económico no sólo debe redundar en el progreso y calidad de vida para todas las personas sino que también debe propiciar la protección de los sectores sociales más desfavorecidos, con criterios de justicia, solidaridad y cohesión social.

Así, la política social, en coordinación con el resto de políticas públicas, debe atender prioritariamente la situación de aquellos colectivos más desfavorecidos, como las personas en riesgo de exclusión social.

El tiempo transcurrido desde la entrada en aplicación de bloque normativo al que se ha hecho referencia, los cambios que ha sufrido desde entonces y la experiencia acumulada en su gestión, hacen que se vea como llegado el momento de plantearse una revisión de los postulados jurídicos y sociales iniciales no solo desde el punto de vista de tender hacia una ampliación del espacio vasco de la inclusión social sino también, y tan importante como ello, la sostenibilidad del modelo prestacional descrito en las normas de tal modo que se compaginen un camino hacia una contemplación de los fenómenos que han hecho que el marco normativo sea susceptible de revisión y uno más volcado en el control, el seguimiento y la disciplina en la concesión y ejecución de estas políticas cuyo refuerzo viene a apuntalar la justicia social que este tipo de políticas requieren.

Ildo horretan, VIII. legegintzaldian Eusko Jaurlaritza eratzeko koalizio-akordioak gogoeta bat proposatzen du eta, hala badagokio, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak osaturiko legezko esparrua berrikustea, bi arauen xedearen eta edukiaren arau-birmoldatzearen bidez.

En este sentido, el Acuerdo de Coalición para la formación del Gobierno Vasco en la VIII Legislatura propone una reflexión y, en su caso, revisión del marco legal conformado por la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales mediante la readecuación normativa del objeto y contenido de ambas normas.

Ildo horretan bertan, hainbat ekimen planteatu dira legegintzaldi honetan Eusko Legebiltzarrean, gizarte-bazterkeriaren aurkako politikarekin loturikoak, eta, batez ere, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatzeko zenbait lege-proposamen.

En el mismo sentido, en la presente legislatura se han planteado en el Parlamento Vasco diferentes iniciativas relacionadas con la política contra la exclusión social y, en particular, varias proposiciones de ley de modificación de la Ley contra la Exclusión Social.

Hori guztia dela-eta, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak akordio bat lortu nahi dute Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak osaturiko lege-esparrua berrikusi eta aldatzeko.

Por todo ello, es voluntad del Gobierno Vasco y del Grupo Parlamentario Socialistas Vascos alcanzar un Acuerdo para propiciar la revisión y modificación del marco legal conformado por la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, gizarte-politikekiko hurbil dagoen multzo bat osatuz, bi alderdiek erabaki dute familia babesteko politikak eta gizarteratzeko politikak ere ezinbestekoak direla gizarte-ongizateko euskal espazio bat sortzeko, eta horretarako, zenbait jardun bateratu adostu dituzte, legegintzaldia amaitu artean aldi baterako lankidetza-oinarriak ezartzen dituztenak, minimoetan oinarrituriko oinarriak badira ere.

Desde otra perspectiva, conformando un bloque igualmente cercano a las políticas sociales, ambas partes acuerdan que las políticas de Protección de la Familia y las políticas de Inserción Social son igualmente imprescindibles para conformar un espacio vasco de bienestar social a cuyos efectos acuerdan unas actuaciones conjuntas que, aunque de mínimos, establezcan unas bases de colaboración temporal en lo que dure esta legislatura.

Hori dela-eta, honako hauek izango dira jardun-jarraibideak.

A tal fin, las pautas de actuación a seguir serán las siguientes.

## II.- AKORDIOAREN EREMUA ETA IRAUNALDIA

## II.- AMBITO Y DURACION DEL ACUERDO

1.- Akordioaren eremu materiala mugatuta dago, alde batetik, gizarte-bazterkeriako arloan araudia aldatzeko legegintza-ekimenak izapidetzera (gaur egun Eusko Legebiltzarra puntu hori aztertzen ari da), baita Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak osaturiko lege-esparrua berrikustera ere, eta, bestetik, Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Euskal Plana eta familia-politikei buruzko plana ( Familiari laguntzeko II. Euskal Planetan bilduta daude) eta familiei laguntzeko etorkizuneko legea izapidetzera eta garatzera.

1.- El ámbito material del Acuerdo se limita, por una parte, a la tramitación de las iniciativas legislativas de modificación de la normativa en materia de exclusión social, actualmente en consideración ante el Parlamento Vasco, así como a la revisión del marco legal conformado por la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales, y por otra parte, a la tramitación y desarrollo tanto del II Plan Interinstitucional Vasco de Inserción Social como de las Políticas de Familia, contempladas en el II Plan Vasco de Apoyo a la Familia, y la futura Ley de Apoyo a las Familias.

2.- Legegintzaldi hau ere hartzen du bere iraunaldian akordioak, eta bildutako konpromisoak hutsaltzen dituen neurririk ez hartzeko edo ekimenik ez aurkezteko konpromisoa ere biltzen du.

2.- El Acuerdo extiende su vigencia a la presente legislatura, de manera que incluye el compromiso de no adoptar medida o presentar iniciativa alguna que desvirtúe los compromisos contenidos en los mismos.

3.- Eusko Jaurlaritzari sostengua ematen dioten talde parlamentarioek eta Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak beren posizio ideologiko eta pragmatikoen arabera egoki irizten dieten ekimen eta irizpide guztiak aurkezteko, defendatzeko eta azaltzeko duten askatasuna murriztu gabe aplikatuko da akordio hau, betiere

3.- La aplicación del presente Acuerdo se hará sin merma de la libertad de los Grupos Parlamentarios que sostienen al Gobierno Vasco y del Grupo Parlamentario Socialistas Vascos para presentar, defender y exponer todas las iniciativas y criterios que consideren oportunas de acuerdo con sus posiciones

aurreko printzipioak errespetatzen badira eta akordio honetan bilduriko konpromisoen betearazpena baldintzatuko ez duten ekimenak badira.

ideológicas y programáticas, siempre que se respeten los principios anteriores y se trate de iniciativas que no sean susceptibles de condicionar la ejecución de los compromisos contenidos en el presente Acuerdo.

4.- Kasuak eskatzen duen malgutasunarekin eta elkarrekikotasun- eta leialtasun-irizpideekin interpretatu eta aplikatuko dira akordio hau osatzen duten printzipio, konpromiso eta jardunbideak, jarrera obstrukzionistak saihesteko eta betiere negoziaziorako, elkarrizketarako eta akordiorako beharrezko ahalegina egiteko asmoz.

4.- Los principios, compromisos y pautas de actuación que conforman el presente Acuerdo se interpretarán y aplicarán con la flexibilidad que requiera el caso y con criterios de reciprocidad y lealtad, de modo que se eviten actitudes obstruccionistas y se procure en todo momento realizar el esfuerzo de negociación, diálogo y transacción necesarios.

## III.- GIZARTE BAZTERKERIAREN ETA GIZARTE ESKUBIDEEN ARLOAN ARAUDIA ALDATZEAREKIN LOTURIKO KONPROMISOAK

## III.- COMPROMISOS EN RELACIÓN CON LA MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA EN MATERIA DE EXCLUSIÓN SOCIAL Y DE LA CARTA DE DERECHOS SOCIALES

1.- Legegintzaldi honetan gure erkidegoaren eraikuntza sozialean aurrera egiteko premia konpartituz eta helburu hauetarako gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak duen garrantziaz jabetuta, honako konpromiso hauek hartzen ditugu bi alderdiek ere:

- Europarako gure konbergentzian aurrera egitea gizarte-gastuan eta euskal erakundeen mendeko gizarte-prestazio eta -zerbitzuen garapenean.

1.- Compartiendo la necesidad de avanzar en la construcción social en nuestra Comunidad durante la presente legislatura y conscientes de la trascendencia de la política contra la exclusión social para estos fines, ambas partes nos comprometemos a:

- Avanzar en nuestra convergencia con Europa en gasto social y en el desarrollo de las prestaciones y servicios sociales dependientes de las instituciones vascas.

- Oinarrizko errentaren unibertsalizazio progresiboa bultzatzea, eta errentaren zenbatekoa sendotu eta haztaraztea, lanbide arteko gutxieneko soldataren bilakaerara egokituz.

- Gizarteratzeko, jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko mekanismoak sendotzea.

- Harmonizazioa eta lurraldeen arteko ekitatea gizarte-prestazioen multzoan.

2.- Aurreko konpromisoen esparruan, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak osatzen duten lege-esparrua berrikusteko garrantzia konpartitzen da, ondoren adierazten diren ildo orokorrei ematen zaien laguntza espezifikoarekin:

2.1. Oinarrizko errentaren zenbatekoari dagokionez:

a) Oinarrizko errentaren zenbatekoa finkatzea portzentajezko puntu baten hazkundearekin lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) %88raino, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako iraunaldiarekin.

b) Zenbatekoa LGSren %100eraino gehitzea pentsioen hartzaileentzat.

- Impulsar la universalización progresiva de la renta básica y consolidar y hacer progresar su cuantía, adaptándola a la evolución del salario mínimo interprofesional.

- Reforzar los mecanismos de inserción, de seguimiento y de evaluación de los resultados.

- Impulsar la armonización y la equidad territorial en el conjunto de las prestaciones sociales.

2.- En el marco de los anteriores compromisos, se comparte la importancia de proceder a una revisión del marco legal conformado por la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales, con un específico respaldo a las líneas generales que se indican a continuación:

2.1 En relación con la cuantía de la renta básica:

a) Consolidación de la cuantía de la renta básica con el incremento de un punto porcentual hasta el 88% del salario mínimo interprofesional (S.M.I.), con vigencia a partir del 1 de enero de 2007.

b) Incremento de la cuantía hasta el 100 % del S.M.I. para perceptores de

Azken neurri hori Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen eta Gizarte Eskubideen Gutunaren aldaketa-legea onartzearekin batera gaineratuko da antolamendu juridikora, eta indarrean hasi eta berehala hasiko da agintzen ekitaldian.

pensiones. Esta última medida se incorporará al ordenamiento jurídico con la aprobación de la Ley de modificación de la Ley contra la Exclusión Social y de la Carta de Derechos Sociales y comenzará a regir en el ejercicio inmediatamente posterior a su entrada en vigor.

2.2. Oinarrizko errenta jasotzeko gutxieneko adinari dagokionez:

a) Errenta jasotzeko gutxieneko adina 23 urtetan atxikitzea.

b) Salbuespen berriak barnean hartzea adin-nagusi izaki eta 23 urtetik beherakoak direnentzat, adosten diren premia bereziko egoerak eta kasuak ere barnean hartuz, ondoren Eusko Jaurlaritzak arauei jarraiki garatuko dituenak.

2.2 En relación con la edad mínima para la percepción de la renta básica:

a) Mantenimiento de la edad mínima para la percepción en los 23 años.

b) Inclusión de nuevas excepciones para mayores de edad y menores de 23 años, incluyendo aquellas situaciones y casos de especial necesidad que se acuerden, que serán desarrolladas reglamentariamente por el Gobierno Vasco con posterioridad.

2.3 Oinarrizko errentaren sorospen osagarri bat ezartzea prestazio horren titularrek etxebizitzarekin lotuta dituzten premiak ordaintzeko (alokairuak, interesak eta kredituak amortizatzeko gastuak).

2.3 Establecimiento de un subsidio complementario de la renta básica para sufragar las necesidades relacionadas con la vivienda de las personas titulares de dicha prestación (alquileres, intereses y gastos de amortización de créditos).

2.4 Gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) asistentziazko eta denborazko izaera atxikitzea, horrelako laguntzekin gaur egun ordaintzen diren edukien nondik norakoaren

2.4 Mantenimiento del carácter asistencial y temporal de las ayudas de emergencia social (AES), sin perjuicio de la adecuación de la naturaleza de los

egokitzapena aparte utzi gabe, programa horiek nahikoa baliabiderekin hornituz prestazio horiek finantzatzeko.

contenidos que ahora son sufragados con este tipo de ayudas, dotando a dichos programas de recursos suficientes para financiar dichas prestaciones.

3.- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du urtebetean Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutuna ordeztuko dituen lege-proiektua landu eta onartzeko, arestian adierazitako ildo orokorrak gaineratuz eta eskubide horiek lortzeko beharrezkoak diren puntu guztiak arautuz.

3.- El Gobierno Vasco se compromete a elaborar y aprobar, en el plazo de un año, el Proyecto de Ley que sustituya a la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales, actualmente vigentes, incorporando las líneas generales anteriormente citadas y regulando aquellos extremos necesarios para la obtención de tales derechos.

4.- Lege-esparrua ildo orokorren arabera berrikuste aldera, akordio honetan adierazitako jardunbideei jarraitzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek.

4.- A los efectos de proceder a la revisión del marco legal de conformidad con las líneas generales referidas, ambas partes se comprometen a seguir las pautas de actuación señaladas en el presente Acuerdo.

## IV.- KONPROMISOAK GIZARTERATZE POLITIKEI DAGOKIENEZ

## IV.- COMPROMISOS EN RELACIÓN CON LAS POLÍTICAS DE INSERCIÓN SOCIAL

1.- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du legegintzaldi honetan Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Euskal Plana (2007-2009) lantzeko, eta komunikazio gisa aurkezteko Eusko Legebiltzarraren dagokion batzordean.

1.- El Gobierno Vasco se compromete durante la presente legislatura a la elaboración del II Plan Interinstitucional Vasco de Inserción Social (2007-2009), y a su presentación como comunicación ante la Comisión correspondiente del Parlamento Vasco.

2.- Honako jardun hauei bultzada berezia emateko premia ere konpartitzen da:

2.- Asimismo, se comparte la necesidad de dotar de un específico respaldo a las siguientes actuaciones:

2.1 Urte anitzeko hitzarmenak ezartzea GKEekin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak kudeatzeko bazterkeria handiko sektoreekin, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntzeko ekipo gisa.

2.2 Prestakuntza eta enpleguko, laguntzako zerbitzu espezifikoak sortzeko eta familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko programa multifuntzionalak abiaraztea, bazterkeria-arrisku handiko sektoreei zuzendutakoak: guraso bakarreko familiak, gazteak, kalitate baxuko gazte emantzipatuak, eta abar.

3.- Azkenik, gizarte-zerbitzuen arloan indarrean dagoen euskal legeria testu bakar batean bat egiteko premia konpartituz, Eusko Jaurlaritzari sostengua ematen dioten talde parlamentarioek, Eusko Jaurlaritzaren beraren ekimenez, eta Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak konpromisoa hartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuek duten egoera aztertzeko eraturiko ponentzia bultzatzeko (2005eko azaroaren 11n onarturiko legekoa ez den proposamena), eta, ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du gizarte-babesaren arloan euskal legegintza-esparrua garatzeko, behin ponentzia horren lana amaitu ondoren, Gizarte Zerbitzuen Legea eguneratuta (2006ko otsailaren 23an onarturiko ez legeko proposamena), jardun hori 2007. urtean garatuko delarik.

2.1. El establecimiento de convenios plurianuales con ONG's y entidades sin ánimo de lucro para la gestión de procesos de inserción social y laboral con los sectores de alta exclusión, y como equipos de apoyo a los Servicios Sociales de Base.

2.2 La puesta en marcha de programas multifuncionales de formación y empleo, de creación de servicios específicos de apoyo y de conciliación familia y trabajo, dirigidos a los sectores con alto riesgo de exclusión: familias monoparentales, jóvenes, emancipados con trabajos de baja calidad, etc.

3.- Por último, compartiendo la necesidad de refundir en un solo texto la legislación vasca vigente en materia de servicios sociales, los Grupos Parlamentarios que sostienen al Gobierno Vasco, a iniciativa de éste, y el Grupo Parlamentario Socialistas Vascos se comprometen a impulsar la ponencia constituida para analizar la situación de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma vasca (proposición no de ley aprobada el día 11 de noviembre de 2005) y, en tal sentido, el Gobierno Vasco se compromete a desarrollar, una vez finalizado el trabajo de dicha ponencia, el marco legislativo vasco en materia de protección social mediante la actualización de la Ley de Servicios Sociales (proposición no de ley aprobada el día 23 de febrero de 2006), actuación que se desarrollará durante el año 2007.

## V.- KONPROMISOAK GIZARTERATZE POLITIKEI DAGOKIENEZ: SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILEI LAGUNTZEKO II. PLANA ETA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO LEGE PROIEKTUA

Azken legegintzaldietan familiei laguntzeko neurriak sendotu egin diren heinean, familia babesteko politikei egonkortasuna emateko premia nabaritzen dute bi alderdiek eta, ildo horretan, politika hori arautzeko premia, familiei zuzendutako eskubideen, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen multzoa ordenatuz.

Horri begira, honako konpromiso hauek adostu dituzte:

1.- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du sei hilabeteko epean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko lege-proiektua lantzeko, non familientzako laguntzak eskubide gisa bilduko diren.

2.- Familia babesteko sistemara garrantzi ekonomiko eta ideologiko handiko alderdiak gaineratze aldera, lege-proiektu horrek honako ildo orokor hauek gainera ditzala adostu dute bi alderdiek:

## V.- COMPROMISOS EN RELACIÓN CON LAS POLÍTICAS DE FAMILIA: II PLAN DE APOYO A LAS FAMILIAS CON HIJOS E HIJAS Y PROYECTO DE LEY DE APOYO A LAS FAMILIAS CON HIJOS E HIJAS

En la medida en que las medidas de apoyo a las familias se han ido consolidando durante las últimas legislaturas, ambas partes evidencian la necesidad de dar estabilidad a la política de protección a la familia y, en tal sentido, regular dicha política ordenando un conjunto de derechos, servicios y prestaciones económicas dirigidas a las familias.

A tal fin, acuerdan los siguientes compromisos:

1.- El Gobierno Vasco se compromete a elaborar, en el plazo de seis meses, el Proyecto de Ley de apoyo a las Familias con hijos e hijas, que contemple como derechos las ayudas a las familias.

2.- A los efectos de incorporar al sistema de protección a la familia aspectos de gran calado económico e ideológico, ambas partes acuerdan que el citado Proyecto de Ley incorpore las siguientes líneas generales:

2.1 Familia-errentaren estandarizazio-sistema bat ezartzea familiaren tamainaren eta osaeraren arabera, prestazio ekonomiko jakin batzuen zenbatekoa modulatzeko.

2.1 Establecer un sistema de estandarización de la renta familiar en función del tamaño y composición familiar a los efectos de modular la cuantía de determinadas prestaciones económicas.

2.2 Konpromiso bat zehaztea laguntzen ereduaren bilakaerari eta hobekuntzari dagokionez, 2020. urtea hartuta erreferentziako mugatzat.

2.2. Concretar un compromiso, en cuanto a la evolución y mejora del modelo de ayudas, considerando como fecha límite de referencia el año 2020.

2.3 Familiaren Behatokia ezartzea, familia-egiturek EAEn duten errealitatea eta familia babesteko garaturiko politiken inpaktua aztertzeko eginkizunarekin.

2.3 Establecer el Observatorio de la Familia con la misión de analizar la realidad de las estructuras familiares en la CAPV y el impacto de las políticas de protección a la familia desarrolladas.

3.- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du Familiaren Behatokia eraikitzeko, betiere sei hilabeteko epean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko legea onartzen denetik.

3.- El Gobierno Vasco se compromete a constituir el Observatorio de la Familia en el plazo de seis meses tras la aprobación de la Ley de apoyo a las Familias con hijos e hijas.

## VI.- AKORDIO HONEN JARDUNBIDEAK ETA BIDERATZE JARRAIBIDEAK

## VI.- PAUTAS DE ACTUACIÓN E INSTRUMENTACIÓN DEL PRESENTE ACUERDO

1.- Legegintza-ekimenen izapidetzeari dagokionez:

1.- En relación con la tramitación de iniciativas legislativas:

1.1.- Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak konpromisoa hartzen du osoko zuzenketarik ez aurkezteko eta osoko beste zuzenketarik ez

1.1.- El Grupo Parlamentario Socialistas Vascos se compromete a no presentar enmienda de totalidad y a no apoyar otras enmiendas de totalidad durante el proceso de

babesteko Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen eta Gizarte Eskubideen Gutunaren lege-esparrua berrikusteko lege-proiektuaren izapidetze parlamentarioaren prozesuan, baita lege-proiektu horren irizpena onartuko dela bermatzen duten beharrezko neurriak hartzeko ere.

1.2.- Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak konpromisoa hartzen du osoko zuzenketarik ez aurkezteko eta osoko beste zuzenketarik ez babesteko familiei laguntzeko lege-proiektuaren izapidetze parlamentarioaren prozesuan, baita lege-proiektu horren irizpena onartuko dela bermatzen duten beharrezko neurriak hartzeko ere.

1.3.- Legegintza-ekimenak izapidetze-aldera, informazioko elkarrekiko mekanismoa ezarriko da Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioarekin zuzenketa partzialen eztabaidan, batzordean zein osoko bilkuran.

2.- Jaurlaritzari sostengua ematen jarraitzen duten talde parlamentarioek, Jaurlaritzaren beraren ekimenez, eta Euskal Sozialisten Talde Parlamentarioak bateratuta jardungo dute helburutzat akordio hau finkatzea duten ekimen parlamentarioetan, baita akordio hori oztopatzeko edo haren aurka egiteko beste taldeen ekimenak direla-eta.

tramitación parlamentaria del Proyecto de Ley de revisión del marco legal de la Ley contra la Exclusión Social y de la Carta de Derechos Sociales, así como a tomar las medidas necesarias que garanticen la aprobación del Dictamen del citado Proyecto de Ley.

1.2.- El Grupo Parlamentario Socialistas Vascos se compromete a no presentar enmienda de totalidad y a no apoyar otras enmiendas de totalidad durante el proceso de tramitación parlamentaria del Proyecto de Ley de Apoyo a las Familias, así como a tomar las medidas necesarias que garanticen la aprobación del Dictamen del citado Proyecto de Ley.

1.3.- A los efectos de la tramitación de las iniciativas legislativas, se establecerá un mecanismo recíproco de información previa con el Grupo Parlamentario Socialistas Vascos en el debate de las enmiendas parciales tanto en la Comisión como en el Pleno.

2.- Los Grupos Parlamentarios que sostienen al Gobierno, a iniciativa de éste, y el Grupo Parlamentario Socialistas Vascos actuarán de manera conjunta en las iniciativas parlamentarias que tengan por objeto afianzar el presente acuerdo así como frente a las iniciativas de otros grupos que vayan dirigidas a obstaculizarlo o contrariarlo.

3.- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du Eusko Sozialisten Talde Parlamentarioari akordio honen edukiaren betearazpenari buruz informazioa emateko, gutxienez hiru hilean behin.

3.- El Gobierno Vasco se compromete a informar al Grupo Parlamentario Socialistas Vascos de la ejecución del contenido del presente acuerdo con una periodicidad, como mínimo, trimestral.

**JOSE ANTONIO PASTOR GARRIDO**

EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAREN BOZERAMAILEA

PORTAVOZ DEL GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS

**JOSEBA AZKARRAGA RODERO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUA

CONSEJERO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL